


# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

262n. zenbakia  
orrilla 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## URKIOLA ARRIGARRI: BASERRIAREN BABES

- KRISTO'REN AURRETIK MARI.
- KRISTIÑAUEAN ALDIAN SAN ANTON.
- GEROAGO PADUA'KO ANDONI DEUNA.
- EDESTI LUZEA TA JAKINGARRIA.
- ELEIZ-BARRUTIKO MISIOLARIAK BARRIZTATUA
- GUZTIOK MAITE DOGU URKIOLA

## ILLEEN IZENAK

"EGUNKARIA" onetako BIZKAIA geigarrian urteko ilabeteen izenen ganean idatzi jen J. L. Lizundia jaunak, leengo aldian. Berak erabilkera aren aurkako eritxia argi itzi jen sano.

Nik esan bear deutsot, baina, bape bat ez natorrela berorrek esandakoagaz. Esandakoagaz eze ze, esandakoa esateko ereagaz be ez.

Bizkaierazko ileen izenak zaarrak dira izan, sistema zaarra, bai. Zaarra baino, betiko sistema dana esango neuskio, inoz be gure ezpanetatik ostendu bakoa, makalik egon arren.

Bizkaierearen altxor linguistiko eta mundu ikuskereari jagokez izen orreek eta orrexegaitik beberorrexegaitik jagon gura doguz. Nortzuk? eta guk geuk, bizkaieradunok. "Bizkaitarkeria!" Kontu ori zaarregia da, gero. Zenbat bider entzun bear izan dogu ori azkenengo 30 urteotan? Kontu zaarregia... Gorde bei patrikeran, mesedez.

Belaunaldi barriak, ni tarteko, ikasi bear izan jeen eurok asmatutako sistema barria. Ikasi?, ondo ikasi be. Norberarena galazon eta barria irunsi egin bear.

Aan gu, bizkaieradun kumeak, diglosia mando biren artean. Alandabe, ez dogu gurea guztiz aaztu eta oraingoan gogor oratu gura deutsogu berari.

Ez dot uste, oraingo kumeak ordukoak baino kokoloagoak diranik. Ez eta Europako beste errialdeetakoak baino. Bearbada, izatekotan, zuurrangoak. Ori eta geiago onartu eta ikasteko gauza diralakoan nago, ganera.

Neure eritxi apalean, asko falta dau oraindikarren BIZKAIA geigarriak berbeta idatziaren eredia sendotute-

ko. Betiko sistemeari eutsiz, gure danari eutsiz, gure zaarrak darabilen berbeteari oratu bear ko leuskioe.

Gure zaarrai ikastea, aor dago kakoa!

Ez bei berorrek aaztu berbeta literarioarena sano kontu subjektiboa izan leitekena. Berorrenzako izan dana, besteren batentzako ez dau alan zertan izan, eta iruntzietara. Berbarako, zezeila, marti, bagila... bizkaieraz, beintzat, February, Marz, Juin... eurenetan diran besteko literarioak eta naturalak be badira. Bizkaierazko tradizino literario eta jasoa lekuko.

Eurok egindako bearra eskertu bearrekoa da. Alperrekoa? Ori txantxetan esango jen berorrek, edota berorren arrazoiari indarra geituteko.

Gure sistema nogino baztertuta eta zapalduta egon dan gomutatea baino ez dauka.

Orleri zentzu geiagoko naziogintza deritxo, aurki.

Nik zentzu oneko naziogintzea gure etxea jagonda, bera laskitu barik, eregi bear dala uste dot. Izan be, gu nazino gara euskaldunak garalako eta euskaldunak gu be bagara bizkaieraz egiten dogulako, betiko sistema eta guzti, orain eta orain dala 30 urte be bai. Eta ez leba txikerrekoa!

Ez dot uste Euskaltzaindian dagozan bizkaierearen ordezkariak danak berorren eritxioak dirala. Ez neuke sinistu gura. Ara geiago, apur bat bitxia baino bitxiagoa be bada, bertan bizkaieraren ordezkaria izan eta bizkaieraz eragoteko bizkaiera bera baztertuteko eskatutea. Bazterkeriok!

Iniaki Martiartu-Bakio

## TURISMOAREN GANEKO AZKEN BARRIAK

Egia esateko, aurtengo udako estatistikak igazkoak baino apalagoak izan dira.

Bagilaren letik irailaren 30era bitartean, 1999ko udan 6.880 lagun etorri ziran gurera 2000ko udan, oster, 4.250 lagun baino ez.

Zergaitik jatsi da ainbeste aurtengo bisitarien kopurua?

Bada, eragilerik nagusia **E.T.A.-k su-etena** amaitu izana izan dala esan geinke. Egoera barri orrek bildurra eta zalantzak sortu dauz kanpotarren artean. Askotan deitu izan deuskue erriko ostatuetatik esateko: bisitariak erreserba egin eta gero, ez dirala agertu, edota ez dirala etorriko esan be ez. Normalean, olango jendea beti egoten da, baina aurtengo egoera politikoak-edo alango gauzak ekarri deuskuz, aurki.

Dana dala, ez pentsatu estatistikek ain emoitza txarrik erakutsi dabenik, ze **1998ko udan 3.538 lagun bisitari euki genduzan**, alan da ze, orain dala urte bi baino jende geiago izan dogu atinen errian.

Turistak nondik etorri diran kontuan artuten badogu, esan bear dogu, **Espainiako estatutik** geienak izan dirala, batez be **katalanak eta madrildarrak**. Bestetik, gero eta andaluziar geiago datoz gure erria ezagututen. Estatutik kanpoko atzerriarren artean, arteragoko urteetan lez, **frantsesak, ingelesak, alemaniarrak**, italiarrak, belgikarrak eta olandarrak igaro dira gure bulegotik.

Gogokoen izan dabezanak: gure erriko **ikuspegia**, bertoko **aro epela**, gure erriko **jaiak eta gastronomia**.

Orrezaz ganera, Turismo Bulegoko bearginek udagoi-eko ekintzak onetara eratu doguz:

- Urrian, **Bartzelona** eta **Zaragozako** Turismo **Azoketan** ibili gintzazan gure erriaren barria lau aizetara zabalduen.
- Zemendian, **Valladolidera** joan-etorria.

- Abenduan, Andra Mari Sortzez Garbiaren zubi luzerako **eski urtekera** bat eratutekotan gabilz.

Erritarrentzako be badaukaguz gauza interesgarriak Turismo bulegoan:

- **Surf taulak** zein **BST materiala** alogerean euki eta saldu egiten doguz.

- **Fotokopiak** egiteko aukerea eta **fax zerbitzua** daukaguz.

- **Espainiako argibide turistikoa** badaukagu zuen oporraldirako.

- **Bakioko opariak** erosi leitekez (txakolina, gomutakiak...).

Gazteentzako **ikasgelak** dagoz.

Gure ordutegia auxe dozu:

Asteleenetik zapatura: 9.30-13.30/16.30-19.30

Domeka eta jaiegunetan: **11.00-13.30**.

(BAKIO)

# ABERRI TXIKIA GARALA?

Gure izparringietan gauza asko agertzen dira ganora aundi bakoak, baiña noizean bein zentzudun gauzak be bai. Eta ez dira izaten zentzunik gitxien dauken gauzak, irakurleak idazten dabezan eskutitzak.

Gaur irakurri dot bat DEIA'n eta bereala idaztera bultzatu nau. Ara nondik nora doan Leioa'ko Iñaki Balsategi'ren eskutitza: "Autodeterminazioa" edo jabetza-erabagia eskatzea, berez ez da buru-jabetza osoa, "independentzia" eskatzea, geuk zer nai dogun agertzea da eta guk nai doguna izan leiteke askatasun osoa edo federakuntza edo gaur lez jarraitzea. Ez da besterik eskatzen geure arazoari geuk erantzutea baiño. Askatasun osoa lortzeko eragozpena gure ekonomia itxia izatea dala diño, baiña gaur be gure ekonomia oso zabala da. Beste alde batetik asko dira aspaldion

askatasun osoa lortu daben aberriak. Guk zergaitik ez?

## LATERRI DIRAN ABERRIAK

1946n. urtetik gaur arte 119 izan dira askatasun osoa lortu daben aberriak. Une aretan 74 ziran munduko laterriak eta gaur 193 dira. Iñok ez dau ukatuko ortik itxaropen aundi bat sortu leitekela gutzak. Ainbeste aberrik askatasun ori lortu ba dabe, guk zergaitik ez? Gure eritxia zergaitik ez da eskatzen ori nai dogun ala ez jakiteko? Zergaitik ez gara erri lez alkartu eta laterri bat izango Zuberoa, Bena-parroa, Laburdi, Naparroa, Araba, Gipuzkoa ta Bizkaia? Zer falta jaku laterria izateko? Nok dauko eskubidea guri ori ukatzeko geuk gura ba'dogu? Ez gara Europa'ko aberririk zarrena?

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

## TXIKIEGIAK GARALA?

Sarritan entzuten dogu gu erri txikiegia garala laterria izateko eta erri txikiak aundiakaz bat eginda Europa aundia sortu bear dogula. Europa izatea iñok ez gurago geuk baiño, baiña Europa'ra geu joango gara eta ez Moren eskutik, erri eldua gara-ta!

Euskalerrian 2.900.000 errikide gara baiña gaur munduan diran laterrien artean 58 dira gu baiño txikiagoak, eta neurri ori lar estu ez artzeko, 87 dira bost milloitik berakoak, ia erdiak. Eta txikiagoen artean 35 laterri dagoz milloi batera eltzen ez diranak. Ori orrelan izanik, nok esan leike gu erri txikiegia garala?

## ZORI TXARREKO ERRIA GUREA

Gure Lauaxeta aundia Gasteiz'en, Elisabet Deunaren illerriko orma-ondoan su-iskillatzeko ipiñi ebenean, berba gogoangarri oneik esan ebazan: "Zori txarreko erri onen alde emoten dot neure bizia".

Zori txarrekoa ete da gure erria?

Nondik begirutzen jakon! Ez ekonomi-arloan, ez jakintzarloan, ez gizatasun neurrian... Arlo askotan zorioneakoak gara eta pozik gagoz.

Baiña buru-jabetzaren aldetik begiratu ezkerro, bai, zori txarreko erria gara. Geu garan lakoak garalako bear ba'da:

Iñoz ez gara alkartu erri bat izateko lur-zati aundiak galdu doguz: Iparraldean Bordelera arte, egoaldean ia Burgos'era arte, sortaldean Lerida'tik itxasora arte eta sartaldean Castro, Laredo, Colindres, Mena ta abar.

Beti askatasuna maite izan dogu, baiña buru-jabetza ez galteko batasuna bear zan. Orain, askatasunaren ondoren lez, emen gagoz zazpi zatitan erri bat izatearen itxura barik, batzuk "frantzes" eta beste batzuk "español" biurtuta. Zori txarreko erria!

Eta orain zer?

Gaur gagoz bide-kurutze garrantzitsu baten: Alde batetik or dagoz "konkistadore" lez datorkuzan españatarrak guri eskubide ori kendu-gurean. Eta atxaki ederra aurkitu dabe: Ori ETA'ren gauzea ei da eta orregaitik gauza txarra, iltzailleena. Baiña ez, ori erriaren eskubidea da eta ETA sortu baiño askoz lenagotik, beti danetik, eskatu dogun gauzea. Iñoz makalegiak izan gara ori eskatzen, foruak naikoa dirala esan dogu, baiña barru-barruan beti izan da ori gure eskaria.

Une aundi onetan, alkartu gaitazan euskaldun guztiok, alderdi batekoak naiz besteakoak, iparraldekoak naiz egoaldekoak, naparrak naiz Euzkadikoak, eta gure ordezkariak Lege-Biltzarrera bialdu eta ozenki esan dagigun: Eldu da askatasun osoaren ordua, eldu da Euskalerriko geiengoak eskatzen dauan buru-jabetza osoa lortzeko ordua!

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek.

# GERNIKA'KO BATZAR-ETXEA (eta VII): BATZAR NAGUSIAK

Bizkaia Jaunerria, asieran, Konde-erri baten antzekoa zan eta 905n. urtean oraindiño Asturias'ko Erreñuagaz dauko ituna. Gero Napparroa'ko Santxo erregearen babespera sartu zan 1.076n. urtera arte eta urte onetan daukagu ziurra dan Bizkai'ko lenengo Jauna Iñigo Lopez "ezkerra" eta onegaz Gaztela'ko erreñuaren babespera sartu giñan. Orduko Bizkaia gaurkoaren irutik bat zan eta Uribe, Busturi ta Markiña Maiorin-lurra osotzen eben. 1054n. urtean alkartu ziran orduko Bizkaia'gaz Enkarterriak eta geroago Durango'ko Maiorin-lurra. Gaztela'ko VIII Alfonso'k 1195n. urtean guda-bidez artu ebalako. Errege onek Durango-aldea 1212n. urtean Bizkai'ko Jauna zan Diego Lopez de Haro II'ari emon eutson.

Asieran Bizkai'ko Batzar Nagusiak bizkaitar guztientzat ziran eta geroago erabagi zan Eleiz-ateak, uriak eta Uri Nagusi Batzar oneitara ordezkariak bialtzea. Orreterako Bizkaia osoan turutat joten ziran, Kolutza, Gorbea, Ganekogorta Oiz eta Sollube mendietatik eta mendi oneitan deia agertzeko sua iziotuten zan. XVI gizalditik aurrera korrexidoreak errietara bialtzen eben deia, lengo deiak kendu barik. Deiaz batera bialtzen eban aztergaiak zeintzuk izango ziran.

Urte birik bein egin bear zan Batzar Nagusia, baiña iñoz urte baten barman bat baiño geiago be egin zan aztergaiak arin ebatzi bearrekoak ziralako.

## ORDEZKARIAK

Euren erriak emondako eskubi-agiria eskuan ebela etorten ziran ordezkariak. Aldundi Orokorra izaten zan Zuzendaria eta aldun Ordezkari guztiak Gernika'ko Udaltzetatik Zugazpera joaten ziran eta zarrenetatik asita urrengorik urrengora deitu egiten jaken. Au zan Foru-Deia. An euren agiriak izten ebezan mai bitan zugatzaren alde bietan, batean edo bestean, oiñaztarrak edo Ganboatarrak erria zein alderditakoa zan. Gero zin-eleizara sartzen ziran eta an Kapellauak Espiritu Santuaren mezea egiten eban. Gero eleizea itzi eta barriro egiten zan forudeia eta ordezkariak banan sartzen ziran eleizara. Altarea errezelagaz estaltzen zan eta beste barik asten ziran Batzar Nagusiaren ekiñaldiak, korrexidorak sarrerako itzaldia eginda. Jesarlekuak ez egozan izendatuta, "Erriko aitenak" eta "Jaunerriko eritxi emoilleenak" izan ezik. Oneik euren jesarleku bereziak eukezan, altara -aurrean egoan Zuzendari -maiaren ondoan.

XIX gizaldiaren azken-erdira arte batzarretara ez ziran sartzen Jaunerriko agintariak eta Ordezkariak baiño. Ez

ziran sartzen ba leiñargiak, emakumeak, abadeak eta gudaostekoak. Geroago onartu zan erritarrak sartzea eta neurriz. Iñoz artu dira batzarretan Araba eta Gipuzkoa'ren ordezkoak be, gaiak lurralde orreikaz zer-ikusia euke-nean.

Batzar Nagusiak parlamentu-antzekoak ziran ba, Bizkaitarrak osotuak eta Bizkai'rako legeak egiteko.

1854n. urtera arte ez egoan barruko araudirik, oiturea zan naikoa, naizta 1549n. urtean Gaztelako Errege-Batzordearen aginduz, "jokabidea, arauak eta egiterak" ezarriak izan Aldun Nagusiak, errexidorak, sindikoak, eritxi-emoilleak eta beste ardurak aukeratzeko. 1868n. urtean idatzi zan barru-araudia.

Erri Ordezkaria izateko baldintza batzuk bete bear ziran adiña 25 urtetik gorakoa, Jaunerrian jaioa izan, leiñargia ta odol garbikoa zala ziurtatu, errietan egozan egokienak izan, Erromantze-izkuntza (gaztelera) jakin, ulertzeko eran irakurten eta idazten jakin, eta erriko ordezkari-tza-agiria ekarri. Lur-jabe, ziranak baiño ezin zeitekezan joan. Erderea ez ekienak batzutan ez ebezan artu. Batzarretik atera ebezan 1625n. urtean Berriatu, Ereño ta Muxika'ko ordezkariak.

## ERAKUNDEA

Ordezkarien almenak Batzorde batek aztertzen eban, Maiorin-alde bakoietatik bi eta almena argi ez egoanean ez zan onartzen.

Batzar Nagusietako izkuntza gaztelera zan. Izkuntza orretan idatzi izan dira beti Bizkai'ko agiriak, Bizkai'ko Jauna zan erregearen eta korrexidorearen izkuntza zalako.

Korrexidorea ez zan iñoz be izaten Bizkai'koa Ibero ibaiaren andiko aldekoa baiño, foruak agintzen eban lez. Dana dala, Batzar batzutan, XVIII gizaldiaren azkenerantz, erabagiak euskeratu egiten ziran, baiña orretarako agindu berezirik barik.

Batzarrak asi ezkerro, batzorde bereziaren esku izten ziran gaiak. Oneik egiten eben azterketa urte bi areitako arazoena eta euren eritxia agertzen eutsoen Batzar Nagusiari eztabaidatzeko.

Batzar Nagusian. izenak sakueta sartuta, arduradunak aukeratzetan ziran: Aldun Nagusiak, errexidoreak, sindikoak, idazkariak, eritxi-emoilleak, Idazkaria, diru-zaiñak, eta beste arduradunak. Oneik ziran Jaunerriko eragileak Aginte Nagusia izenagaz, eta onek 1.500n. urtetetik aurrera bere jokabidea eukan.

OLAZAR'tar Martin'ek.

## BEGOÑA (eta X): GEROKOAK

1903n. urteko egun ospetsu arein ondoren, gaur arte, Begoña'ko Amari dagokion oneraspena eta agurtza beroa aurrera ta aurrera joan da.

Etxegintza-arloan, torre barria egin eban Basterra etxegiñak, 1908n. urtean, martiaren 27n. egunean, X San Pio aita-santuak Basilika egin eban eleiza au, 1928n. urtean urrillaren 1In. egunean (egun odoltsu aretatik 25n. urtea zan) Mujika'tar Mateo Gazteiz'ko Gotzaiñak sagaratu eban eleizea.

Arrezkero Begoña'n beti izan dabe oiartzuna Bizkaia'n izan diran jazokizun pozgarriak naiz negargarriak. Ona emen batzuk: 1918n. urteko urrillaren 27n. egunean Irudia Bilbao'ra jatsi zan guda-osteko gripea zala-ta anbeste ilten ziranean, Sorkunde Garbia fedeko egi agertu zanetik 75 urte bete ziranean, Bilbao'ko kaleetan eleizbide eder bat egin zan. Eta erritarren arteko gudaren ostean, danetik ikusi da, argia ta illuna, aunditasuna ta txatxartasuna... Eleizearen ormak ez eben kalterik izan aurreko gudetan tez, baiña bai inguruan samintasuna ta min aundiak, batez be guda Bilbao'n izan zanean. Irudia barriro ekarri zan eleizara. Koroiak toki ziurrean ipiñi ebezan Begoña'ko arduradunak eta barriro jarri ziran amaren eta umearen buruetan. Frantze-aldian jazokizun bat: Antoniuti Nuntzioak auxe esan eban itzaldi baten: "Non dagoz Begoña'ko Amaren bitxiak ostu ebezan esku sagara-ausleak?" Eta erbesteratuta aurrean egoan Begoña'ko Abade batek esan eutson eskuak erakutsita: "Onei-xek dira, Jauna, esku orreik! Baiña bitxi guztiak ondo zaindu ziran eta curen lekuan dagoz".

1947n. urteko orrillaren lenengo egunean, Gasteiz'ko Gotzain zan Ballester'tar Karmelo'k, bureskundearen 50n. urtea zala-ta, izango ziran jaiak iragarri ebazan. Gero 1950n. urtean Bizkai'ko erri guztietara eroan zan Begoña'ko Ama'ren irudia, Belasko'tar Konstantino abadea lagun zata eta Bizkai guztia etorri zan Begoña'ra. Urte ori ospatzeko 100.000 Bilbao'tar urreratu ziran Begoña'ra 1948n. urteko orrillaren 30n. egunean. Gero beste erromes-aldi batzuk.

1950n. urte orretako irailaren 8n. egunean barriro jatsi zan Begoña'ko Ama Bilbao'ko Santiago'ren eleizara. Eleiza au Eleizbarruti barriaren Gotzain -Eleiza biurtuta egoan. Egun orretan sartu zan Bizkai'ko lurretara eleiz-barruti barriaren lenengo Gotzain izendatu eben Mocillo'tar Kasimiro. Gotzain-Eleizara sartu zan eta erriaren eta agintarien aurrean, Begoña'ko Amaren irudia aurrean zala, Aurtenetxe ta Goitia'tar Frantzisko'k, eleiz-notario lez, latinez, gazteleraz eta euskeraz irakurri eban Aita santuaren Agiria eta Gotzain barriak itzaldi bero eta eder baten auxe esan eban: "Begoña'ko Ama! Artu egizu zeure altzoan Bilbao'ko Eleiz-Barruti barria!"

Urrengo egunean Begoña'ra croan zan Irudia eleizbide eder bat eginez. Eleiza onetan egin zan Bilbao'ko lenengo abadeen abadegintza, 1951n. urteko bagillaren 29n. egunean. Ementxe artu dabe Gotzaintza gaur Donosti'ko Gotzain dan Uriarte'tar Juan Maria'k eta txanburu, parroko, zan Etxenagusia'tar Karmelo'k.

"Bizkai'ko seme leialak, Otoitz-Ordua etorri".

OLAZAR'tar Martin'ek

## BIZKAI'KO 37 JAUNEN IZENAK ETA URTEAK

1 <sup>a</sup> .- Iñigo Lopez " Ezkerrti .....	1040-1077	19 <sup>o</sup> .- Juana Manuel eta Gaztelako II Enrike	1369-1371
2 <sup>a</sup> .- Lope Iñiguez.....	1077-1093	20 <sup>o</sup> .- Gaztela'ko I Juan.....	1371-1390
3 <sup>a</sup> .- Diego Lopez de Haro (I).....	1093-1124	21 <sup>o</sup> .- Gaztela'ko 111 Enrike.....	1390-1405
4 <sup>a</sup> .- Lope Diaz de Haro (I).....	1124-1170	22 <sup>a</sup> .- Gaztela'ko II Juan.....	1405-1454
5 <sup>a</sup> .- Lope Diaz de Haro (II).....	1170-1214	23 <sup>a</sup> .- Gaztela'ko IV Enrike.....	1454-1474
6 <sup>a</sup> .- Lope Diaz de Haro (II).....	1214-1236	24 <sup>o</sup> .- Isabel eta Fernando.....	1474-1504
7 <sup>a</sup> .- Diego Lopez de Haro (III).....	1236-1254	25 <sup>o</sup> .- Gaztela'ko Juana ta Felipe.....	1504-1505
8 <sup>a</sup> .- Lope Diaz de Haro (III).....	1254-1288	26 <sup>a</sup> .- I Karlos.....	1527
9 <sup>a</sup> .- Diego Lopez de Haro (IV).....	1288-1289	27 <sup>a</sup> .- 11 Felipe.....	1575
10 <sup>a</sup> .- Gaztela'ko Enrike.....	1289-1295	28 <sup>a</sup> .- III Felipe.....	1602
11 <sup>a</sup> .- Maria Diaz de Haro-Juan.....	1310-1334	29 <sup>a</sup> .- IV Felipe.....	1621
12 <sup>a</sup> .- Diego Lope de Haro (ez egokina).....	1295-1310	30 <sup>a</sup> .- 11 Karlos.....	1667
13 <sup>a</sup> .- Juan de Haro.....	1322-1326	31 <sup>a</sup> .- V Felipe.....	1702
14 <sup>a</sup> .- Gaztela'ko XI Alfonso.....	1334	32 <sup>o</sup> .- I Luis.....	1724
15 <sup>a</sup> .-María Diaz de Haro (II).		33 <sup>o</sup> .- VI Fernando.....	1751
Juan Núñez Lara.....	1334-1349	34 <sup>o</sup> .- 111 Karlos.....	1770
16 <sup>a</sup> .- Nuño de Lara ta Diaz de Haro.....	1350-1352	35 <sup>a</sup> .- IV Karlos.....	1789
17 <sup>o</sup> .- Juana Nuñez de Lara-Tello.....	1352-1359	36 <sup>a</sup> .- VII Fernando.....	1814
18 <sup>a</sup> .- Gaztela'ko I Pedro.....	1358-1366	37 <sup>o</sup> .- II Isabel.....	1839
Tello Bizkai'ko Kondea.....	1366-1370		

# URKIOLA ARRIGARRI: (I) LENENGO ELEIZEA

**Oraintsu argitaratu dau Joseba Legartza Urkiola'ko abadea dan adiskide aundiak liburu eder bat "La sinfonía incompleta de Urkiola" deritxona. Erderaz dago geiena baiña ederto idatzita dago. Ia 800 orrialde dira, baiña ondo josiak.**

**Irakurri dot eta gauza batzuk arrigarriak eta gure irakurleentzat jakingarriak dirala uste izan dot. Orregaitik asi naz idazten, ez liburua aztertzeke, or agertzen diran bitxikeri batzuk gogoratzeke ta azaltzeke baiña zazpi idazlan izango dira. Arritu nabon gauzak.**

**Asiera au uztiatzen dot Urkiola'ri eta bertan bizi diran adiskideai nire maitasuna ta txera ona agertzeke. Eleizbarrutiaren mixiolari izandako abadeak eta laikoak dira eta euren artean Biktor Garaigordobil gotzain eta adiskidea. Mungia'ko nire txokotxutik, guztioi lenengo agur au!**

## MILLAGARREN URTE-AURREAN

Euskerazaintzan lankide dodan Latiegi'tar Bixente'k eleizearen edestia diran eta zortzi ale daukazan liburu bat argitaratu dau eta lau liburu daukaz or Euskalerriko eleizearen edestia agertzeke. Bere itauna au da: Noiz esan zan lenengoz AITA GUREA euskeraz? Eta berak emoten dauzan jakingarriak barru-min aundi bat sortu dabe nigan.

Beste alde batetik, oraintsu irakurri dodaz biokaz batera lankide dabillen Anes Arrinda'ren liburuak eta or agertzen da gure etxeen eta auzoen sorrera zelan izan zan. Gauza arrigarria au be.

Nire ustez Euskalerriko eleizan millagarren urtea izan zan garrantzi aundikoa. Artean eleiza guztiak baseleizak edo ermitak ziran eta milleurtea amaitu zan inguruan eleiza batzuk aundi egin ziran eta parroki biurtu.

Gotikuak lenago.

Bosteungarren urterako gure errietara fedea eldu zata jakiniñak (naizta asko, bear bada, kristautu izan barik bizi orduan), au da nire itauna: Zelan bizi eben curen fedea lenengo kristiñau euskaldunak? Parrokirik ez eukien, ermitak auzo bakoitzean bat, asko ziran, domekak ospatzeko abaderik ez egoan... Zelan?

Ara nire susmoa: Euskaldun areik kobatik urten ebeanean, etxeak egin ebezan landetan edo basoetan eta etxeak eurentzat garrantzi aundia eukan, geroko lege zarretan agertzen dan lez eta etxean beteten ebezan euren erlejiño-zeregiñak. Egunen baten monjeren bat etorri jaken Kristo'ren barria ekarten, orduan asi ziran gizon orreri abadea esaten. Eta monje orrek ez eutsen aldakuntza aundirik eskatu, baiña bai illetak ospatzeko alkartzeko eta gorpuk lur santuan, eleizan, lurperatzeko. Orrelan asi ziran kristiñauen batzarrak. Gero eleiza orrek, ermita orrek, arduradun bat bear eban eta monjeak berak izendatzen eban curen arteko bat, ermitaño izateko. Ermita asko etxe baten barruan dagoz eta etxe orreri ermitaño-etxea

esaten izan jako, edo "freila"ren etxea edo "serore"-etxea. Zeintzuk ziran onen zeregiñak: Eleizea zaindu, otoitzera-ko kanpaia jo (goizean, eguerdian eta gabean eta illetak iragarteko. Eta etxeetan kanpaia entzuten zanean, amak egiten eban otoitza, etxeokaz batera. Ama zan benetako abadea etxean.

Ez dot aurkitzen astarrenik illetak zelan egiten ziran esateko. Gorpua eleizara eroan, otoitz egin eta illobiratu. Gero, igandeetan mezara joateko oiturea etorri zanean, anda-bideak alkartu ebazan etxea ta illobia. Ortik etorriak dira brainsu kendu ziran erresponsoak, argizai-olak, "Olatak" eta abar. Or daukaguz oraindiño he ondakin batzuk.

Eta ermita orren arlo-barruan egozan etxe guztiak "kofradia" sortu eben. Ai! Zelako guraria daukadan kofradien edestiari buruz liburu bat idazteko, baiña lan aundia li tzake!

Eta orain, esandako dana kontuan dala, gogoratu daigun Urkiola'ko lenengo baseleizea: San Anton zaindari, ermitarik geienetan tez, antxiñako santua. Aurrerago, antza, Anboto'ko Mari'k eukan gurtza or eta gurtza orren lekuan ezarri zan San Anton'en zaindaritza. Noiz ori! Nire ustez, seigarren gizaldi-inguruan. Eta orrelan jarraitu eban fedeak lareun urtetan. Orduan sortua izango da Urkiola'ko kofradia, naizta gero, D. Benito Bizkarra'ren garaian, beste elburu bat ezarri kofradia'ri. Inguruan etxeren batzuk egongo ziran, ez asko, tokia ez da egokia bizi izateko-eta, baiña guztien artean ermitaño, freila edo serore batek zuzenduko eban lenengo kristiñau arein fede-bizitza eta noizean bein etorriko zan, Kukula'ko Donemiliane'tik bear ba'da, "abade" edo monje bat ikustaldia egiten eta mezea esaten. Ez aitzu erriaren izena bera be "Abadiano" dala eta Apatamonasterio be ez dago urrun.

Arrigarria da gure kristiñautasunaren sorkuntza! Urkiola'n be bai! Zalantza barik olako zerbaiz izan bear!

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek

## GALDAKOZTARRAS? EZ ORIXE!

Galdakon illero banatzen dan "TU PUEBLO" deritxon aldizkari ortan, eta batez be 2.000 — XI — 14 garre-nekoan, erderazko artikuluan baten, auxe dakar; A partir de ahora los vecinos de Galdakao seran definitivamente "GALDAKOZTARRAS". Irakurri ondoren, Galdakauko bertokoak, iñoz entzun bako berbea zala ta arritu ziren.

Orain urte batzuk neu bere erriko auzoetatik, euskerazko berbak esakunek eta abar batzean nenbillenean, Galdako izenari buruz eta orrela, -ar, eta -tar esaten zala eta erabiltzen ebiela. naizta "Galdakoztarrak" berbea kasuren baten entzun. Baña iñoz bere ez dot entzun: Galdakotz, Galdakanotz, Galdakatz, Galdakaotz, berba orrein "-TZ-" ots ori esanda, "-Tz-" ortatik gero "-Z"-otsa egiteko, eta ondoren ezta Galdako-z-tarrak esateko ere ez.

Esanak esanda, Galdakotan-en euskereak berba bardiña esateko, iru era ibilli eta adiñekoen artean gaur ere darabilliez. Esate baterako: Usansolo, Labea, Bekea eta Arteta auzoetan geien batek berba asko -EA- berban amaitzen dabez; SENTELLEA, OSTEA, KATEA, eta abar. Arratien Igorre aldekoen antzera. Jugo, Aperribai, Olabarrieta eta Bengoetxe auzoetakok; SENTELLIE, OSTIE (OSTEIE), KATIE. eta abar, Zoilo,- Zaratamo eta ArrigorriaQa errietakoen antzera. Urreta (alde bat), Belategi, Kurtze, Elexalde, Padrola auzoetakoak, askok, -IA-erabilliz, SENTELLIA, OSTIA, KATIA, Lezama ta Larrabetzu errietako askoren antzera; naita batzuren artean, Arrati aldekoen antzera -EA- erabilli.

Oraintzurarte ixentaziñoko idatzietan "Galdacano" izena agertu jaku; naita erritarrak berba einkerana eta esakeretan "Galdako" erabilli, baita "Galdakau" ere bai. Galdakar eta Galdakautar beti esan doguz. 1892 urteko inguruan, Galdakao en-ian eleiztar "MIXINOAK" izan ziran. Eta ordutik da 1936ko gerraratño, eleizan, umieri auxe kantazoten eutsoen: Galdakau'tar umiak gatoz Jesusgana... da kanta au nik neure amagandik olantxe ikasi neban, ta ori oían dala oraindiño be askok daki.

Galdakok be, erri askoren antzera, ezizen bat deko, ta berau "MOSOLLO" ezizena da. Da ortik, Mosolloarrak eta mosollotarrak. Euskera ez dakienak ta erderaz berba egiñezkero bertora etorriko narbaitek, erderazko -S- esan da orrela esan dau: mosollo-s, eta ortik, erderazko beste plural bat, -S- sartu ta MOSOLLOTARRAK esan bearrekoan, MOSOLLO-S-TARRA-S esan bere bai. Baña gauzak argitu direzan modure argituezkero, ez jakintsu eta olangoak, ez dot uste aurrerantzean txarto esan da gaizki egingo dabienik benetako eta jatorrizko berbak Mosol]o'arrak eta Mosollo'tarrak diralako.

Dudarik egon ez deiten, eta olango gauza guztietarako,

-ar, -tar, -dar, eta sufijo geiago ere euskeraz zelan erabiltzen diran erakusten emoteko, IZTEGIAK zer diñoen, ikusi bearko da Bibliografiaren bidez.

### IZTEGIAK

AZKUE, Resurrección María de: "Diccionario vasco-español-francés. Euskaltzaindia-k argitaratua. Bilbo, 1984. -AR, -DAR.

—AR: 1.º C, sufijo que significa (natural, oriundo) Durangar, Gernikar = Le sustituye, por lo general, -Tar, sin que se sepa. no sustituyendo por el uso, cuando se deben emplear uno u otro: Bilbotar, Bilbaino. Donostiar, San Sebastianes.

—DAR. (C), sufijo patronímico. Israeldarren ta gure guzien erregetarako.

—OTS egin: 1.º, llamar. OTS egiñak, los llamados.

OZ: 1.º radical que significa (cielo) se usa en la derivación y es variante de ORZ. Var., OTZ, HOTZ. 2.º Hoz. Var., de OTZ, HOTZ.

ELHUYAR KULTUR ELKARTEA / ELKAR S.L.: "EUSKAL HIZTEGI MODERNOA" EUSKALTZAINDIA. AZKUE BIBLIOTEKA. Bilbo 1994.

2 -ar, -tar, -dar. Leku-izen bereziei eratsita, jatorria adierazten duten adjektiboak sortzen dituen euskal atzizkia (poloniar, amerikar, debar, lezotar, ataudar) Adjektibo izaki, eratorriok izenaren eskuinean zein ezkerrean czar daitezke eta askotan izen-balioa dute. -tar/-dar formaz beste eratorri mota auek ere sortzen ditu: pertsonaizenei erantsita aren janaitzailea dena edo ari dagokiona adierazten du (frantzizkotar, sabindar, nepertar) deiturari erantsita,, familia orretako kidea (agirretar, borgiatarrak); izen arrunt bizigabeei erantsita, alako jatorria duena edo aren zalea dena (eskuindar, kaletar, baseritar, itsastar).

EUSKALTZAINDIA. Real Academia de la Lengua Vasca. Académie de la Langue Basque: EUSKAL ERRIKO UDALEN IZENDEGIA. Nomenclator de los Municipios del País Vasco. Nomenclature del Communes du Pays Basque. (Metodologia eta Bidaiak) 120-122 orrialdetan: Galdakano, Bilbo, 1979.

Azkue, Resurrección María de : "Diccionario Vasco-Español-Francés, introducción de Luis Mitxelena. Euskaltzaindia. Bilbao, 1984.

-tar(c), sufijo que significa (natural, oriundo), es variante de -AR-; empleandose una u otra, sin que razones eufónicas influyan en ello, con palabras terminadas

en vocal.

DICCIONARIO RETANA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA. Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1976 - 1989. Iztegi onetan. beste bederatziren artean laguntzalle agertzen da, J. de Kerexeta

- TAR. (c) Untzetarrak. Likonatarrak, Deustuatarrak, Bermeotar, Bermear, Elgoibartar bat. Usurbildarrak, Irundarrak.
- AR: Durangar, Gernikar, Arabar, Alaves, Donostiar, Zuberotar, Bilbotar. Diccionario RETANA de Aut. del Euskera.
- DAR: Ikusi "Amaia" Iztegia, Kerexetaren zuzendaritzapean, 1990.
- OTS: Ikusi "AMAIA" Iztegia. Kerexetaren zuzendaritzapean, 1990.

HIZTEGIA 2000 euskara-espainiera, espainiera-euskara vasco-español, español-vasco.

Oñaztar, ganboar. Lenidar, maotar, gutar, eleiztar, berbak agertzen diva, baita: -tar. 1. sufijo que indica origen o pertenencia a lugar o familias; tras palabras acabadas en vocal pierde generalmente su t y detras de l y n se transforma en dar: eibartar, donostiar, irundar, en el sentido de pertenencia a una familia se utiliza de la siguiente manera: ori Manu da. Zein Manu, ordea? Manu Errekondotarra: ese es Manu ¿Que Manu? Manu el de la familia Errekondo.

KEREXETA, Jaime de: Beronen zuzendaritzapean: "Diccionario AMAIA de la Lengua Vasca". GRUPO EDITORIAL ERNESTO AMAIA. Madrid, 1990.

- ar: suf. que significa (natural, oriundo), como durangar: durangués; gernikar: guerniqués; elorriar: elorriano. Lesustituye por lo general -tar, sin que se sepa, no siendo por el uso, cuando se deben emplear uno y otro: bilbotar: bilbaino: donostiar: natural de San Sebastian; zuberotar: natural de Zuberoa. 2: a punto de...

tar: suf. que significa "natural, oriundo, es var. de -ar; empleándose una u otra, sin que razones eufónicas influyan en ello, con palabras terminadas en vocal. Untzetarrak: los del linaje o de la familia de Unzeta. Likonatarrak: los del linaje o de la familia de Likona. Bermeotar, Bermear: natural de Bermeo. Con voces terminadas en consonante nos valemos de -tar o su variante -dar despues de las resonantes "n" y "l". Elgoibartar bat: un natural de Elgoibar. Usurbildarrak: los de Usurbil. Irundarrak: los de Irun.

dar: suf. patronímico despues de nasal "n" o "l".  
ots: ruido. 2: tono, 3: voz, clamor, 4: fama, renombrada. 5: enorme, 6: querencia, pasión, vehemente, chifladura, inclinación casi irresistible. 7: busca, rebusca. 8: ¡jeal. interj. de incitación. 9: golpe, momento. 10: es decir, o sea.  
ots-adar: cuerno (instrumento músico) 2: arco iris.

otsandiotar-otxandiar: natural de Ocandiano.

ots-egin: clamar. 2: llamar; convocar. 3: resonar, 4: predicar, 5: sonar.

QUEREXETA, Jaime de: "Diccionario Onomastico y Heraldico Vasco" T. II. BIBLIOTECA de La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1971. Director: JOSE MARIA MARTIN DE RETANA. Galdacano (Galdakano). 1. En Galdakano (B), y en Arrasate-Mondragon (G) 2. Según L.M., pastizal (alda, anda: pasto, y los sufs. -zaano con G protét.) Var. de Galdacano. 3. Vec. de Mondragón en 1429.

LHANDE, Pierre, S.J.: DICTIONNAIRE BASQUE-FRAN-AIS ET FRANCAIS-BASQUE. T.I. Paris. 1926. Tar C. suff. qui signifie: naturel, originaire. Uztariz-ta Var. de -a .

LIZUNDIA, Jose Luis: Knórr, H.: "Euskal Udalen Izendegiaren proposamena aurkestean". EUSKERA XXIII (2.aldia). (Galdakano, Galdako eta abar...), 305-311 orrialdetan. 1978-1 (Urtariletik-Ekainera). BILBO.

LIZUNDIA, Jose Luis: "Herri eta Herritarren Izendegia". EUSKERA XXI (2. aldia), 287-315 orrialdetan: (Galdakano. Galdakao ta abar). 1976 BILBO.

MUJIK: DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO, T.I. II. (Placido Mugica Berrondo). Mensajero. Bilbao 1981.

- AR 1. natural de: Ernaniar, Lasartear-natural de Hernani, de Lasarte. 2. amigo de, partidario de. Tar, dar -ar, -r 1. natural de: Pasaitar, irundar, Ernaniar, tolosar (oriundo, originario de, nativo de...) 2. habitante, vecino de, residente en: auzotar, erritar, untar. menditar. 3. deudo, pariente: neretar, zuretar, beretar, guretar=pariente rño, tuyo, suyo, nuestro 4. colega, compañero, camarada mio, etc. 5. G banderizo, partidario, amigo, seguidor, de, adicto a: esker-tar, eskubitar, Karlostar, Aranatar. 6. compatriota, paisano mio, 7. correligionario de 8. de (linaje, familia): Mujika'tar Balendin=Valentín de Mugica. 9. parecido a: ume au amatar da= éste niño se asemeja a su madre 10. huesped invitado: maitar=a la mesa, comensal. 11. amante de: buruentar=amante de sí mismo.

DAR, -tar 1. natural de: Irundar. Usurbildar=nacido en Irun, en Usurbil 2. Huesped, invitado, asistente a: gosaldar, apaldar, bazkaldar, maaindar=comensal.

ZAMARRIPA Y URAGA, Pablo de: "GRAMATICA VASCA". Sexta Edición. Bilbao. Imprenta y Encuadernación Casa DOCHAO, 1947. pp. 258.

AR, TAR. Ambos significan "natural" u "oriundo". Siendo el segundo más usual que el primero, que apenas se usa más que tras algunos nombres de lugar de más de dos sílabas terminados en vocal. Tras los en a, como



Araba, y tras los en o, como Durango, suprimiendoles su respectiva final.

Alava. Araba. Alavés. Arabar.

Bilbao. Bilbo. Bilbaino. Bilbotar.

Vizcaya. Bizkai. Vizcaino. Bizkaitar.

El segundo, tar, significa, además. (partidario)

Oñaztar, oñacino, partidario de Oñaz.

Ganboatar. gamboino, partidario de Gamboa.

## ERRIEK BERBAZ

Norbera edo edonor ere, euskeraz berbaz dagoenenan ez ezagun baten agotik auxe entzun leike: zure berbal otsetan, zu urlri errikoa zara. Eta norberak be bardin esan leike beste bategaitik, naita ez ezaguna izan, paraje bakoitzak bere zertxue deko ta, bere otsetan ezbardintasuntxo bat darahillelako.

Berba: palabra. Berba cite Galdakotarra euki; Berba eitez Galdakarra izan; Berbal otsez berbaldi Galdakostarra (Galdakoztarra) erabili; Galdakaoko berbalots tarra izan. Ots orzan ete deko sustraie? Arrati. Mungie, Larrabetzu eta Lezamako batzuen artean be, batzuk, —starrak, eta —ztarrak, erabilten deurie -ar. -tar, -dar, orde. Berbal ots horretatik etc dator —starrak, ztarrak sufijoak? Nik ez dakit. Euskerak maixu ta jakintsu asko dauz ta eurok esango dabie. "Amaia" Iztegian, ara Jaime de Kerexeta jaunak zer dinon:

Berbalari: hablador, en buen o mal sentido.

Berbaldi: discurso, sermón.

Berbaldun: charlatán.

Berbalots: rumor, ruido confuso de voces.

Berbarots: rumor, ruido confuso de voces.

Berbataldi: conversación.

Ots: ruido, sonido. 2: fama, nombradía. 3: enorme. 4: nombre, título. 5: pasión, inclinación muy viva. 6: ¡ea! interj. de incitación.

Otz: frío. 2: puro, simple, solo. 3: parte norte. 4: frialdad en los sentimientos. 5: frío, sin calor humano, indiferente.

Ots: ruido. 2: tono. 3: voz, clamor. 4: fama, nombradía. 5: enorme. 6: querencia, pasión, vehemente, chifladura. inclinación casi irresistible. 7: busca, rebusca. 8: ¡ea! interj. de incitación. 9: golpe, momento 10: es decir, o sea en "Amaia" Jaime de Kerexeta.

Otz: frío. 2: friamente.

Baña kontuan eukitekoak ere badira: Galdakano, Barañano, Lazkano. Bilbao, c/ de Askao. Sestao eta olangoak, bertoko erdelunak eta euskeldun guztiak orela esaten dabiela; —ano. -ao ta olangoakaz euskerazko diptongos egiten dalako: Galdakau, Barañau, c/ de Askau, Sestau eta abar. Onela: Bilbo. Bil-ha-o, Bil-bau. Deusto, kampoko erderadunek De-us-to, ta bertokoak eta euskeldunek: Deus-to, Deus-tu. Bertoko erderadunek eta euskeldunek: Bil-bai-no, ta kampoko erderadunek: Bil-ba-í-no. Eta

orrela gertatzen da kanpoko erderaduna ta ez dakiena, jainko buru einde dabillean.

-ar, -tar, -dar, -ztar, -star, eta abar. sufijoak dirala ta emen:

Dima: Dimarra, Dimetarra. Dimoztarra, Dimekoa, Dimetarrena, Dimekoena.

Galdakano: Galdakano-ko, -kue, -arrak, -tarrak, -ztarrak, -starrak.

Galdako-kue, -arrak, -tarrak, -z (s)tarrak.

Galdakau-koa, -arra, -tarrak.

Galdakao-ko. -ku, -tar, -z(s)tar.

Galdames: Galdamestarrak. Gorliz: Gorliztarrak. Igoerre (lyorre):-tarrak, lyorreztarrak.

h-aizoz: Iraizoz -tarrak.

Lemona: Lemoa, Lemoatarrak, Lemoarrak, Lemoztarrak.

Lemoniz: Lemoztarrak.

Urduliz: Urduliz -tarrak.

Sangotza: Sangotzarrak, Sangotzatarrak, Sangoztarrak.

Zeauri: Zeanuritarrak, Zeanitarrak, Zeanikoak, Zeaniztarrak.

Zaratamo: Zaratamoarrak, Zaratamotarrak, Zatamoarrak.

Lanuket: Larruketarrak, Larruketenak, Larruketekoak.

Ona emen Barrenetxea tarren familiko bat: he aquí uno de la familia de los Barrenetxea.

Ona emen Barrenetxea tarrak: he aquí a los Barrenetxea.

Ona emen gure Jose Mari, Barrenetxea tarra: he aquí nuestro Jose Mari, el de la familia de los Barrenetxea.

Ona emen Barrenetxea tarren gure Jose Mari txikerra: he aquí nuestro pequeño Jose Mari de la familia de los Barrenetxea.

Sin embargo, parece que se da algo incorrecto y anti-popular usar, -zar, solamente y sin más con el apellido antepuesto al nombre a secas: Barrenetxea tar Jose Mari: Jose Mari el de (el de los) Barrenetxea.

Galdakaotarras? !Ez orixe!

Esanekeetatik aparte be badira erriren batzuk, erderazko —S— plurala edo antzerakoa ere darabilleanak. Esate baterako: Orobios (Oromiño). Ameskoas (Ameskoak). Lekerikas (Lekeriketa), Andrakas (andraka?) ta abar. —S— ori, erderazko plurala balitz, euskera ezekien norbaitek idatzitakoa? Bestela, euskeran antzekorik emon leio? Esate baterako: Orobios (Orobi-ots?) Orobio tarren ots? Andrakas (andraka-ots?), Andraka-akats, Andra-akats? Ta orrela. Nire iritzia baño ezta, baño —S— orrek erderazko plurala baño geiago euki ei leikela uste dot. Bai Kerexeta jaunak baita Azkue jaunak euron lanetan "akats" berba orrek zer esan nai dauan ere badakarsku.

Jose Mariano Barrenetxea. Galdakao 2001-I-4.

# LITRO-PISTON LARON (ANDRE ZIPITRIA BIZKAI'KO LEENENGO ANDEREÑOARI) (3. Baria)

– Pedro Mari Aletxa. Servidor de usted  
– Francisco Albizuri. Servidor de Usted  
– Fernando Arkaiaga. Sardiña ustel.  
– Qué dice usted, señor Arkaiaga?– Sardiña ustel.  
–Servidor de Usted! Ekin zion maixuak garraxika, Per-  
nando'ren aurpegi-aurrera etorrita. Sugeak txoritxuari  
nola? Ala maixu erdaldunak Abeletxe'ko maiorazgoari.

Izuak artuta ume gizarajoa; besperan gaztiña-pilloa  
apalduta, irten dio puskar eder batek. Maixuak, eskertia  
izanik. ezkerrakin eman zion zaplastakoakin. jira-bira  
mutilla ardatzean bezela. - Bestia! Eraso zion maixuak.  
Pernando'k, aurpegia tomatea bezin gorri, bildurrez eta  
apal, - Ezin det, jauna- erantzun zion. Qué dice este ani-  
mal? Ez zuan iñungo erantzunik lortu.

Eskolako bigarren eguna. Pernando Arkaiaga'ri esko-  
lak ez zion argi askorik ekarri; kale-umeen artean arrotz  
aukitzen zuan bere burua. Eskola-maixua erdalduna eta  
irurogei mutikoei erakutsi bear... An biltzen giñan sei  
urteko aurrak eta amabiko mutil aziak. Aibeste umerekin  
ezin zuan burutu... Maixua ernegatuta; gu, berriz, zuntzi-  
tuta: ez ikusi eta ez ikasi. Abeletxe'ko maiorazgoaren  
antzera zebillen beste baserritar modoxka bat ere.

Etxeak urrun bazkaltzera joateko eta gurasoek trapuz-  
ko poltxatxo batean arto zati bat eta intxaur batzuek ipin  
tzen zizkieten bazkaltzeko eta orrela botatzen zituzten  
kalera kultur billa. Kale-umeok jaten genduzen aien  
intxaur eta mizpero. Baserritar umetxoak arto ura jan eta  
berriro eskolara. An egon bear noiz amaituko, baserrira  
itzultzeko...

\* \* \*

Abeletxe'ko Pernando Arkaiaga'ri burua moteltzen  
zitzaion kaleko erdera artean eta tonto antza ematen zuan.  
Baña, bere barruko munduan zorionsu bizi zan. Irriparra  
ez zuen galtzen eta iñorekin berbetan jardun ezean, kan-  
tari asten zan beti lelo au errepikatzen: Litro-Piston-  
Laron, Litro-Piston-Laron... Eta Litro izena ipiñi genion.  
Maixuaren aldetik, berriz, ez zuen sekulan argirik lortu-  
ko: maixua bera bere gauzetan murgildurik ebillen guri  
kasorik egin gabe. Bazuan bizikleta bat eta ura garbitzen  
ipintzen ginduzen tarteka; batez ere astelenetan. Bitarte  
orretan, liburuak irakurtzen pasatzen zuen denborarik  
Qeien. Ez zituen urce asko egin errian eta bigarrenerako  
alde egin zigun Bilbo'ra.

Baserrietako umeen egoera, batez ere, oso latza zan.  
Alaz ere, gustora bialtzen zituzten erderazko eskolara: ez  
zituzten nai curen semeentzako soldaduzkan jaso bear  
izan zituzten trato bildurgarriak, erderarik ez zekitelako...

Eskola ondoren Dotriñara urbiltzen giñanean, orduan  
agertzen zan Litro guztien artean nagusi: Dotriña-liburu-  
tik edozein galdera egiten ziola apaizak, Pernando'k  
zuzenean, utsik gabe, erantzungo zion itzik eta berbarik  
laga barik. Osorik eta garbi.

– Baña, Pernando, nun ikasi dek Dotriña ain ederki?  
– Amamak erakusten dit apalondoetan.  
– Txo, txo, ire amama maixua baño abillagoa dek iri  
orrenbeste erakusteko!

\* \* \*

Bera Arkaiaga eta ni Arzelus, maai berean jarri gindu-  
zen alkarren ondoan.

– Ostiralean illargi berria da– esan zidan– eta aitarekin  
gau-arrantzara joan bear det eta zuk ere etorri nai  
ba'dezu...

– Zure aitak zer esango du?

– Anai zaarragoarekin etorri bearko dezu eta orrela  
aitak ondo artuko zaitu.

– Nere arrantza asko guztatzen zait; baña, zer da gau-  
arrantza?

– Etorri eta ikusiko dezu.

Joan nintzan pozik etxera eta gurasoen baimena lortu  
nuen eta anai zaarrena lagun nuela agertu nintzan ostiral  
arratsaldean Abeletxe baserrian. Ikullu-ate ondoan an  
zeuzkaten nekazaritzarako lanabesak oso txukun ipiñiak  
eta aien ondoan an-antzarako zenbait tresna.

– Begira, Premin, leenengo ta bat parola bear dogu,  
bakoitzak berea. Emen daukazu zuretzako karburoakin  
pizten dan krisallu bat.

Ura bota zion karburoari eta irten zion gasari poxpolo  
bat erantsi zion eta orrela nik banuen neretzako bear nuen  
argia arrantzan joateko.

– Ezkerreko eskuan krisallua eta eskubian lau-ortza  
arrañari lepotik sartzeko.

– Nun ikasi dituzu gauza auek?

– Aitaxokin gau-arrantzara joanda ikasi ditut. Baña,  
beste batzuetan olagarroak arrapatzera joaten gera eta  
orduan kakoa bear dezu olagarroari eltzeko.

- Gau-arrantzan arrapatzen al dituzute olagarroak ala?  
- Nungo inñuxentea aiz i? Olagarroak egun argitan arrapatzen dituk. Aitak erakutsi diat zuloetan egoten diran.

- Nola ezagutzen dituzu zuloak?

- Etxe-inguruetan poto zaarrak eta erreusak egoten dira eta olagarroen etxeetan ere berdin: nekorak jaten dituzte eta aien karkasak eta ezurrak an egoten diran zuloaurrean; gantxoia zuloan sartu eta kanpora olagarroa...

- Asko al dira orrelako zuloak?

- Asko ere ez dira bear: olagarro batek etxea uzten duanean, beste bat sartzen da etxe artara.

Mutiko onek kalean tonto-itxurak ematen ditu, baña ez da ain tontolapikoa. Kale-umeez ez dakizkigun milla gauza dakizki mutil onek bere basarrian ikasitakoak.

- Eta, gau-arrantzan nola arrapatzen dira arraiñak.

- Ori laister ikusiko dezu: marea oso beeran egoten da illargi berritan eta oso illun. Putzuak gelditzen dira aitzarteetan eta an egoten dira preso arraiñak; itxaskabrek batez ere. Argia ematen diezu eta bizkarretik sartu lauortza eta, arraiña sakura.

- Eta beste arrantzarik egiten al dezute illargi berritan!

- Bai, anguletan joaten gera ibaira eta an daukagu orretarako kanaleko bat.

- Eta, zerekin arrapatzen dituzute?

- Baiarekin eta arrapatutakoak, kajatxo batera. Gero, etxean, tabakoakin ur berotan pasa eta zapi zurietan zabaldu ozteko.

- Zuk aña maixuak berak be ez daki.

- Gauza auetan nere maixua aitatzko da; dotriña, berriz,

amamak erakusten dit.

- Mendikoak ere aitak erakusten al dizkizu?

- Mendikoak eta eizekoak. Laister da uso-pasea udazkenean egoa asten danean eta orduan mendi tontorrera joaten gera usoak arrapatzera.

- Usoak?

- Baita ollagorrak ere; baña, ollegorretarako mendiko zuloetatik ibiltzen gera...

\*\*\*

Izketan ari gerala, eldu gera arzabaletara. Itxasoa alde eginda zegoen, gaua oso illuna eta zuloetan, Pernando'k esan bezela, itxaskabrek gora begira geldirik... Saku-erdi bat arrapatu gendun. Eta etxerako dozenerdi bat eman zizkiguten.

Arrituta nengoan: onek erderarik ez daki, ezta tutik ere; maixuak, euskerarik ez, ezta tutik ere. Nola arraio konponduko dira bi auek? Ardoa begitik ematearen antzeko lana darabil gure maixu jaunak oneri erderaz kultura eman nai dion bitartean.

Euskerazko maixurik ez dan artean, obe litzake mutiko auek etxean edukitzea, bertako lanetan eta bertako kulturatan. Baserria bait da auentzako benetako Ikastola Nagusia.

ARZELUZ'tar AMALE

### AITA SANTI ONAINDIAREN DEDUZKO AMALAUOKA

Aita Onaindia agurgarria  
ospeka dagigun oso ta bizi!  
Bere jokaerak bai dau merezi  
sari bat argitsu, miragarria...  
Jainko ta langilleen gudaria  
agertu zalako dogu onetsi;  
sekula ta beti be goretsi  
Erri ta euskeraren zaindaria.  
Aintza zuri, Bizkaiko seme kutun,  
arimazale maite-maitia, Artzai!  
Ezein gizaganako yarei lagun!  
Zure ekiñaldietan beti garai!  
Aitor'en izkuntzaren goren iztun,  
da aren "ERESIEN BATZAILLE TANTAI".

YOSU EXEA

Gasteiz-en, 2000-7-24

## MITOAK ERRIKETAN ETA GOGOETAN (EUSKAL ARITZAREN ALDASKAK GERA)

Indoeuroparrak Europa'n zabaldu baiño leen irubat milla urte aurretik, euskera onen zala baietzutenez dio Tovar'ek.

Jatorriz ba edesti aurretiko laño anean daukagu murgil gure giza-gogoaren arnasa. Beraz, sortzetiko erriarekin lotzen gaituzten deitura edo izendatzea izkuntzaren bitartez dagigu. Geiago dio Oteiza'k izkuntza gure egiazko abenda dala esanaz. Erdal erriekin muga zaigun euskal zuaitz mardula. Gu, bakoitza. euskal giza-zuaitz erotsu ta eder onen muskil gera.

Gure euskalduntasunaren amasa, bere barren kemenez gaitua, alda dezakenik ez da, ez legez, ezago lur-konkistaz naiz berkonkistaz, ontarako kañoiak-eta Jainkoa'ren "alde" jarriaren.

Izkuntzaren bereiz-lerro onek eman zigun erri -burujabeteza au ez da ia zalantzan jartzen Errege Katolikuen etorrera arte. Baiñan aukeratu azaldu diranetik, erabat aldatzen da (zenbait sasi-edeslari ameslariak beintzat) hachemayuscula ko Historia, errege oiek Erri bakar bat eratzeari ekiten bait dicte (eskoletako "historietas" de España gezurtiak diotenez) ta batasun irrikatua lortu ere. Inperio gintza lantsu ortan arrakastatu gerta onen ziran errege oiek egikeraz, eragindarrez eta pazientziak (ori bai!)

Eskerrak baieztasun berbera orrek berberarekin dakarrela pentsatu gabeko oiñazpi-ideia baliotsu ta argigarri au: Erri bakar bat eratzeari ekin ba'zioten. onek zera esan nai du, bateratu bearreko etri oiek ezberdiñak zirala. Eta atzo, gaur eta biar bezela, ez dago lege batez naiz lege-sail batez batzerik sortzez ezberdiña dana, sagarrak eta udareak otarrean jarririk beste igali berririk sortzen ez dan antzera.

Ezertan sartu baiño leen esan dezagun argi ta garbi (errege oien "egintza ukatuz) katoliku diralako aukeratu etzutela erri ezberdin oiek bateratzeko asmo izpirik izan. Eta auxe da Conde de Rodezno'k -Franco'ren ministrariak- 1939' go ekaiñaren 7'an dionean:

"... españiar erreñu ezberdiñakin politikazko batasuna lortzea etzan iñoiz errege katolikuen pentsamentuan ezta sartu ere...".

Uka eziñeko esaldi garrantzitsu au ez dugu aipaturik ikusten gure Historietan. Zergatik???

Iberiar penintsulako erriekin ez gera sartuko, danak gutxiasko gaztelera bait-dute mintzaira. (Españiarrak ez du berea beste izkuntzarik ederresten). Gu, berriz, euskerak erroz eta erabat besteekin bareizten gaituanez, ezin izan gindezke España iñundik ere, lege-aginduz, kañoikaden zapalkuntzaz menderatu nairik erdal gurdari "uztartu" ba'gaituzte ere. Nebrija'k ederki esana ez dugu aztutzerik: "gaztelera" (la lengua castellana) beti izan da inperioaren laguna (compañera del imperio).

Zertara dator ba. ainbeste aldiz entzuna dugun "bosteun urte dirala gutxienez" España bat egiñik. Bidasoa'tik ego-

egoraño españiar gerala esatea, ezagutzen dugun España politikua errege katolikuen garaian ez baiño, askoz geroago eratu bait-zan?

Izkuntzaren indarra aundia da benetan. Eta au ongi dakite eurekin naastu nai gaituzten erdal dunak eta inperio-zaleak. Eziñak gorrotagarri egin gataie. Ortik amorruzko "kristauki itzegizu" (habla en cristiano), garai bateko moruei ere esaten zitzaiena.

XVI'garren gizaldiko Loiola'tar Eneko eta Xabier'tarra ere, naiko iperloka ibilliarren, euskaldun ziralarik españiar al ditugu? Ba, begira, antziñate antan ere euskera zaie ozenkiro muga, españiar etziralaren agergerri eta etziguten beren euskalduntasuna beñiere kukutu. Loiola'koak ez du bere burua ez-eta Xabier'ena españiar jotzen. Eta 1.539'gn. urtean "españiar batasun betean" (edestilari merkeak esango lukeenez) Jesus'en lagundia eratu berriaren lenengoetako ekintzetan, Loiola'koak bere lagunai (Bobadilla, Lainez eta Salmeron'i) "hispani" deitzen die. Loiolako'ak, aitzitik, bere buruarantz eta Xabier'entzat "canthabri" deitura (euskaldun-itzat bezela oitzen zana, ez zearo zuzena, baiñan tira!) artzen du.

Paulo IV Aita Santuak berberak ere, "Preposito viscaino" (lagun-buru euskalduna, alegia) deitzen dio Iñazio'ri (Telletxea'k dionez), garai artan euskaldunoi deitu oi zitzaieenez; ez ordea españiar.

Xabier'ek ere, euskaldun danez, 1544go. Ilbelta'ren 25'an Kotxin'dik Coimbra"ko jesuitai bere eskuz idatzitako gutunean, ez du ixiltzen zein zailla zaion en mi lengua bascuenze (nere euskal izkuntzan) inditar malauar mintzairan itzegiten dutenekin alkar-ulertzea (Irujo'tar Manuel'en liburuan irakurtzen dugunez). Izkuntza ez ote da, gero, aberria berbera? Euskaltzaleontzat, bai.

XVII'gn. gizamendea aurrera dijoa. Ustez sendoki egiñiko España politikuan. conde de Lamus'ek, txit españiarrak, "El búhogallego" deritzan liburua idazten du. Ontan, penintsula osoko erri ezberdin guztiak, Portugal bera ere barren, egazti-itxurapean batzarturik agertererazten ditu. norbere arazoak azaltzeko. Ontza da egazti-batzen onen buru.

Euskalduna xoxo antzean aurkezterazten du. Eta españiar egazti jator (abe natural española) ez dala diotsa batzarburu dan ontzak. Ukapena entzunik, xoxoak:

- Ez ote naiz ba españiar?

Eta ontzak, patxaratsu eta irriparez:

- Ez al zenekien? (Agora lo ignoras?)

Ez da Lamus Kondea, begibitan beteko egia aitortzen duan bakarra. Ondoren beste batzuk etorriko dina auxe beta aitortuz.

Ondorena: Zergatik atsegin ez dana ezkutatu edo -ta gezurretan alderantzi biurtu? Igaroa ez aztu! Sustrairik gabe gel dituko bai giñake!

EGAÑA'tar GOTZON'ek

## BIZIA ESKUTAPENA DA AIZGITU EGIZU

Giza jakituriak ba-dauka naiko zeregin ta baita bere naiko buru-min gizadiaren bizia ta izadiaren izaera ezagutzen. Giza jakituriak biziaren sorreran artu eban zoragarritzko agindu au... menperatu egizu lurra. Emen dago benetan eskutua. Bizi egin bear ta eskuak utsik ta lurra sasiak opaka. Ez zan edozelako egoera. Alan be, giza semeak ez ziran kikilduta geratu, berezko dei orri erantzunez.

Lagunak, turra, itxasoa, goi ortza, aurrean, eukazan, euren edertasun guztia opaturik. Baiña inguru onek naita ederrak izan, ixilik, egozen sasi ta arantzara makurrago. Nok emen, nun, zer, zelan, nundik asi ba euken berezko miñiknaikoa. Gure izkuntzeta endakoak asi ziran lanerako tresnak sortzen, inguruan eukezan gauza gogor ta baliotsuenei oraturik. Ta ikusten zituen gauzen artean arria zan gairik beñena ta gogoz, bota eutsen eskua lan tresna ederraren lagun izateko

Adimena asi zan bearrean ta lenengo bere arnari bikaiñak atxurra, aizkora, aizo ta atxurkilla izango ziran. Onen bitartez lenengo zeregin aundiak azi ziran, sasiak garbitzen, zelaiak sortzen, lurrak aroltzen, zoizko etxeak egiten ta biziari arpegi barria emoten. Geldi geldika, baiñaziur joian biziaren eskutuari arpegia agertzen. Burua ta besoak, batera, lanean ta izadia, aurrera, joian arnari barriak emoten.

Eguzkia sorkaldean agertukeran, baserritarrak soloan ebiltzan, geroago ta poz geiagoz, solo, zelai ta lubarrietako frutuak ugaritzen ta gozatzen ikusirik. Txoriak arrika ta piztiak makillaz, edurra egin ondoren, lurmen gaiñean jausten ziran. Jakituria aurrera ta orturariak be aurrera joiezan gozotasunian. Ta gizon zurrak, olan, zuzpeltu ta indartzen ziran biziaren zirkulluak, obeto ezagutuz ta lurra menperatuz.

Aldirik gogorrenak bajoiezan iges mendi eta soloei ateak zabalduz. Bas-idiak ta pizti-zurrak ba doaz igeska sasiatan zear, gizonari bildurra arturik ta solo eder zabalak datoz bizia ren eskutua argitzen. Ardiak eta beiak agiri dira zelaiak

alaitzen ta artzaiña bedar lekuetan zear dabil bildots jaio barriak lepoan arturik txistu otsean kantari.

Egunak egunari argi egiten dautso ta aurrera joian lanerako tresna barriak sortzen ta beiak bustar turik lurrak astintzen. Bizi bidea aberastuten doa ardiz mendiak zurituta ta bei zuri gorriak landarik landa doaz biziaren eskutua argitueraziz. Aurrerapideak eskabide barriak dakars, adimena geroago ta zabalago, bizitz eskutuari geiago egiten doa. Lengo leza zuloetatik urten ta nonnai, bizi lekuak agertzen asi dira.

Bizitza barri bat dator ol, arri ta lur nasteko bizi tokiak sorturik. Leza illunen orde eguzkia sartzen jake etxera leio txiki politetatik. Arnasa barria lubarri-landu barrietatik artzen dabe ta bizia asi da indartzen, zabaltzen ta luzatzen. Urrats aundiak emoten doaz lugin-tzako arazoetan, lurra barrizturik goizetik gabea, baiña guztia doa pozez beterik, biziaren aurrerapidea ikusirik.

Sasi ta otadiak menperatuz, mendi goiak ta arkaitz gallurrak agertu ziran ta eguzkiak argituta, izadi guztiari bizia ta jakituria eskeintzen eutsen ta bizitza ederragoa asi zan lurraren gaiñean. Goizian goiztik doa artzaiña esnontziak artuta, artzainora aurretik, joñas antzean, laguntzen doakiolarik, artaldea bazkatzera, gaztaiak egi, eko esne batzera, bildotsak, arduraz, zaintzera ta bizi-moduari bide barriak sortuz, illuna kendu ta argi egitera.

Gizonaren gogoa, bultzaka, egoan lurraren bidean, urrats barriak eskatzen eutsozan aurrean ekusan lurraldeak. Arrizko atxurrez asi zan lurrak zetuten ta lana ta izerdia ugari izan ba-ziran be, arnariak emoten esanekoa ta oparoa izan jakon ta gizonaren lan ta izerdi guztiak, gogoz eta ondo, onartu eutsozan izadiak. Egoki alkartuta dabiltzaz gizona eta izadia

Bizia aberastuten doa lurrari ondasun barriak sortueraziz. Emendik datoz pentsabide barriak, gauzen ugaritasunak, batabesteaganako artu-emonak, zuk

---

## GIZONA

---

niri ta nik zuri, gauzak trukean salduta, gizarte barri baten giroa sorturik. Bide barriak artzen doa gizadia, gizarte artu-emonak geroago ta beartsuago ta ugaria-goak izango dira-ta, biziaren eskutua garantzen ta argitzen doa

Arto solo lurrak ta gari ??? spñp zabalak lurra apaintzen asi dira ta bedar mueta bereziak, bizi bizi, dagers zelai ta aldapetan. Lengo lardi ta sasiak janari-rien janarien sorleku eginik, arbasoen baratzak dirudie. Gizonaren adimenak sasiaren eskuyua ametzeko loradi ie biurtu dau. Len, bizian, larradiko berezko lore frutuak ziran janari, gero hizonak bere jakituriz sortzen zituan abere, arto, gari, ibaietako txitxardiña ta itxasowtako legatz, bisigu ta gaiñerako arraon bizi biziak.

Gizona geroago ta erneago joian urratsik urrats aurreratzen, eskutuzulo guztiak bere naietara jarriaz. Mendi, solo ta arriartetik burdiñera joko dau. Olez, arriz ta burdiñez gurari ameskorrenak sortuko dauz. Lurrak emon ditun iru gai eder onek izan bere, illezkorren ondorengoak dira, baiña gizonak jakituriaz olezko, arrizko ta burdiñezko lanak illezkor biurtuta itxi ditu.

Oraindiñorik bada beste eginkizun bat bere eskututik atara ta gizadiaren argi ta ongille izan bear dabena. Jakituriak ta zuzentasunak egin leikeen egitekorik sakon eta ongarriena gizona argitu ta zuzentzea da. Almen eder bi ditu giza-semeak adimena nai

naimena ta gizartearen joko ta aurrerapidea almen bi orren pentsuan dagoz. Zeregin bikaiña benetan, eginbear au aurrera eroan ta gizarteari zuzenbide egoki bat emotea.

Illuntasunak argia bear dau gidari, baiña bere lagun ta bultzallea ezin daiteke okerbideko naimen bat izan. Antxiña, illunak ez eban nai izan argia, ezta okerrak biotza zuzentzerik. Ortik datoz ondoren norberekeriak, ikusi eziñak, gorrotoak, zapaltzeak, lapurretak, lasaikeri nabrmenak, eriotzak negarrak ta min emoteak.

Egia zer dan ezagutzea da lenengo bearra ta norberekeriak, ondo, iñausi, biziaren eskutua, zuzentasunez, ikusi al-izateko, baiña biotz bultzaillea be bide bardiñetik joan bear dau. Biotza esitzeak gizonari, sarri, bildurra emoten dautso ta olako lanik ez dau entzun bere egin nai. Zabalkeriz ta zabarkeriz; norbere gogoetara ibili nai dabe, baiña gizonak barua argiz ta biotza zuzentasunez azertu bear ditu

Giza bizia aurrera eroan al izateko, gizona, osoan, oneratu bear da. Personearen almenak landu egin bear dira. Bestelan, pistola negarra ta odola ez dira paltako gizarte naigabetuan. Gure biziak, egiz, merezi dauz egia, zuzentasuna ta bakea. Gauza egokia da koldarkeri ta ustelkeriak alde batera bota ta zuzen danari arpegi emotea.

PAULIN

### "SOLAS" FILMA

"SOLAS" filma Benito Zambranoren leenengoa da. Bertan agertzen diran aktoreak be ezezagunak dira, baina oso lan polita eta ona egiten dabe.

Filmaren gaia bakardadea da, eta Zambranok uriko auzo beartsu baten kokatu dau ori gordinago egitearren.

35 (?) urteko andra baten bizitzea da ardatz nagusia.

Alde batetik, beraren arazoak bear duina topetako, eta bestetik, beraren mutil lagunagaz daukan artuemonan.

Familia artuemonetan komunikazionorik ezak be bakardadea are nabarmenagoa egiten dau.

Baina Zambranok itxaropenari bidea egiten deutso, eta erakutsi egiten deusku, lagunak edozein lekutan aurkitu leitekezana.

Iratze ORMAZA  
(BAKIO'n)

# LEGE ZARRA (FORUA) (I): EDESTIA

Lenengo aldietako Bizkaia zelan sortu zan eta zer izan zan, ezin jakin. Alde batetik agiririk ez daukagulako eta bestetik gai au bizitzasun larregigaz aztertzen dalako. Baiña gutzat auxe izango da naikoa: Erdi-Aroan Bizkai-barruan iru lurralde egozala. Lenengo jaunerriak bere zabaltasuna Gipuzkoa'n asi eta Nerbion ibaira-artekoa zala eta gero zabalago biurtu zala, Durango-aldea ta Enkarterria gaiñeratu jakozalako.

Iru lurralde oneik bakoitxak bere erakundea euken, bere batzarrak eukezan eta Enkarterrikoak Abellaneda'n batzen ziran, Durangoaldekoak, ostera, Gerediaga ta Astola'n. Lenengo Bizkaia ez zan beti leku baten batu, Aretxabalagana ta Idoibaltzaga be izan ziran batzar-lekuak, baiña gero Gernika'ko zugazpea artu zan oituraz batzar-leku-lez.

Iru lurraldeak alkartu ziranean, Gernika'ko Batzarrak Batzar Nagusi biurtu ziran, Enkarterrikoen eta Durangoaldekoen, gaiñetik. Lurralde bi oneik ez ebezan galdu euren eskubideak eta ordezkariak bialtzen ebezan Gernika'ko batzar nagusietara. Errietako ordezkariak aukeratzeko Eleiz-Ate ta Urietan fogeradunak batzen ziran. Fogerea sendi bat bizi dan etxea da, baiña etxearen jabe ez ziranak, erreteru ziranak, antza, ez euken autarkirik, "Hidalgo, hijo de algo" izateko etxe-jabe izan bear zan. Geroago guztiak artu eben autarkia emoteko eskubidea.

Jokabide au demokrazi lez artu leike, naizta gaur oitzen dan lez "notin bakotxak autarki bat" araua betetu ez.

Jokabide onetan eragin aundia izan eben Oñafzarrak eta Ganboatarrak. Oneik odoldu eben gizaldietan Euskalerra. Azkenean curen indarra kendu "Hermandad de Bizkaia" zalakoaren bidez eta bakea egin zan.

Giro onetan sortzen da Euskaldunen oroipenik ederrena dan legedia: Lege Zarra edo Forua.

Baiña zer da Lege Zarra edo Forua?

Sarritan entzuten dogu "eleizaren forua", "gudalosteen forua" edo "Uriaren forua" eta olakoak eta ortik letorkigu burura Lege Zarra edo Forua Gorengo Agintariak emondako almen edo askatasuna edo lege bereizi batzuk dirala eta gaur olako lege bereiziaz gorrotoja jake, guztiak legearen aurrean bardiñak ez izatea adierazten daualako. Baiña Lege Zarra deritxon Forua ez da ori. Beste gauza bat da Bizkai'ko Forua esaten dautzaguna: Erriak bere edestian artu dauzan erabagien, lege biurtu diran erabagien laburpena da edo argiago esateko Erriaren Lege Nagusia. Eta legegintzarako oiñarri ta eskubide ori errian sortua da, ekanduz eta oituraz etorria da. Ara zer diñon XIII Alfonso erregeak berak: "Foruak gauza bi daukaz barruan: Ekandua ta oiturea. Oneik sendoak izateko Foru-barrura sartu bear dira".

Lege Zar edo Foru au ez zan idatzi XV eta XVI gizaldietara arte.

Lege askotan agertzen da esaldi au: "Bizkaitarrak oitura lez dauke antxiñatik", baiña legedi idatzirik ez

egoan XV gizaldira arte. Ba-diño Iturriza edeslariak, lenagoko foru batzuk ba-zirala eta irutan idatzi zirala euskeraz eta zarrenak VIII gizaldikoak dirala, baiña ori esateko ez daukagu oiñarri ziurrik.

1272n. urtean Artzeniega uri biurtzen dauan agirian, auxe irakurri daikegu: "Bizkaia'k eta Vitoria'k dituen legeak emoten dautseguz". Baiña ez daukagu aldi orretako lege idatzirik, oiturak ziran, baiña, ori bai, guztientzat ezagunak ziran oiturak. Orregaitik emon al izan eutsoezan Artzeniega uri sortu-barriari.

1452n. urtean Idoibaltzaga'n egindako Batzar Nagusi baten auxe erabagi eben: "Batzorde bat sortu, lege guztiak batu eta idazteko". Urte orretako bagillaren 2n. egunean agertu ziran Korrexidoraren aurrera batzordekideak Gernika'ko Andra Maria'ren eleizan eta esan eutsoen erriaren legeak idatzi barik egoteak kalte aundia dakarrela. Korrexidorak ori ontzat artu eban eta batzordekideen ziña artu eban eta jarraian oneik idatzi eben gaur Foru Zarra deritxoguna.

1506n. urtean Korrexidoreak Batzar Nagusian agertu eban Foruan ziran lege batzuk ez egozala argi eta aldatu egin bear zala legedi au.

1626n. urtean, jorraillaren 5n. egunean batu zan Batzar Nagusia Gernika'ko Zugazpean eta legedia barrizatzeko bide ori onartu ondoren, Batzorde bat izendatu eben. Oneik agustuaren amargarren egunean egin eben zin Bilbao uriaren alboan egoan NAJA etxean, korrexidoraren aurrean eta ogei eguneko epea emon jaken euren zeregiña beteteko. Orretarako egunero batuko ziran goizeko seiretatik amarretara eta ordu batetatik bostetara. Azkenengo idazkia aurkeztu eben agustuaren 21n. egunean, artutako epea baiño 9 egun lenengo. 1527n. urtean bagillaren 7n. egunean Foru Barria I Karlos erregeari aurkeztu eutsoen Balladolid'en eta onek izenpetu eta irarteko baimena emon eban.

Esan daigun Foru au erderaz idatzita dagoala eta iñor ez dala arduratu euskeratzeko, arik eta arabar batek, Aramaio'tar batek, Puxana ta Agirregabiria'tar Pedro'k, Estornes Lasa'tar Jose'k lagunduta, 1981n. urtean. Euskeratze-lan au oso gaitxa izan da, Pedro'k barak esan daukun lez. Lege batzuk sarritan itzuli bear izan dauz argi eta zintzo geratu daitezana eta ez da izan erreza lege-arloko eta aldi aretako itzai dagokien gaurko itza euskeraz aurkitzea. Baiña lana eginda dago eta eskerrak Puxana adiskideari. Nik liburu mardul au irakurri dot eta euskera ederrean egiña ta irakurgarria da.

Oraintsu il jaku Puxana'tar Pedro jauna.

OARRA: Jakingarriak Colección de temas vizcaínos'en. BAK'ek argitaratu eban ZELAIA'tar ADRIAN'en idazki'tik artu dodaz batzutan euskeratu baiño ez. Sarritan zeozer gaiñeratu edo kendu.

OLAZAR'tar MARTIN' ek

---

# INOREN TXAKURRA

---

## II EZ EUENIAN

Edozein errian, urte azkotan ikustenzan zidarra, urrea ta danetako aberaskiak, etortenzianak atzerritik: baña, egia ezateko ekinzan gutxituten ta gero aberaski orreik geratuzean ezeretan; bañe jakinzana zan Edozein errieak aberazki orde z eukela zor aundiak, euzala zoretan Lur-eko erri larreiri.

Ez ori bakarrik, errian euzein aberaski ak urteten euzela erritik. Danen orren gañean lenagoko txanponak ez zian ikusten, ta oneñ orde z errikoak dakuen paper batzuk egunero gutxiago eroziezkenaz biziteko. Bañe ori ez zan dana.

Ainbeste ta ainbeste zidar, urre ta aberaski artean -urteak ta urtietan- jateko, edateko, jantziteko ta danetako gauzak ekartenzialako atzerritik; erriko lurak, erriko izanleskien aberaskiak, jarezian alde batera, geratuteko ikusten EDOZEIN erria ezertzan.

Da danori izangolitzake gutxi, EDOZEIN erria ikustenzen euzela larrei, naiebeñak txanponak, -erria aberatza izanzalakota- orregaitik, "erriak ordaindu ebela —ezatenebeñ oneik biar ebeña, jarraituteko bizitzen "Pon-Pon".

Orrelako ebaizkisunaz erabaizkuna ez zan erreza. Orrelan askatuzan inka aundienetakoa.

Erriko geienak ikusten ebein inka arek estutenebela bizi-tza, ta itaun ebeñ: ¿Noiz ta zelan erabagiko da inka au?.

Orretan euzenian agertu zean buruntapenak, baitabe ameskereak, bañe danen gañean dagozen izagerak, ta oneik zian garratzak. Begiak ondo eregitak eukanak ikusteneben, itxaropena izangozala urte asko ta gerokoa.

Bañe ¿Bitartean?. ¡Oba da ez jakitea izanzean EDOZEIN errian!

## III EGUN GUSTEAK EZ DEA BARDIÑAK

Lau urte errien-bizitzan aguro igarotendia.

Iñok ez ebeña oldoztu agertuzan errian. Titereo batzuk, eskujokari, barre-egiteko ezanerak, euren zarata aundeaz, agertuzian, ezaten: "Gaurko gauan, EDOZEIN errikoak ikusiko dabe beinbe ez dana ikuzi Lur-ean, ikuzigarriena, EDOZEIN erriko Artist-antzelari onena!".

Ta orrelan izan-zan. Erriko danak jakifneibein zeñ ta zelakoa zan, titereoak ezatenebeñ zala, antzelaria.

Gau a beinbe ez zan aztuko ¿zer gaitik?.

Erriko geienak an ikuzizean.

Gasteak, zarrak, umeak, ikuzi naiebeilako erriko antzelari aren. Ta orrelan ekinzan beinbe ez-ebeña ikuzi:

Titereak ekinzian eurak ondo dakiena egiten eukiteko, dagozenain ikusten atseangigarri mirespetan trebetasunak; baita be, ikustenebeñak eskujokariena, dagozen guttiz pozik.

Danori ikustenzan, entzun alaz euren nusikeak ta zarak, danen barre artean. Gero, titiritearen Zuzendaziak, iru turutagor ta luzeaz aurretik, ezan eben:

¡Orain ikuziko dozue, EDOZEN erriko artist antzelari, ludiko onenari, egiten iñok ez dabena beinbe ikusi!. Ta agertuzan:

Ibilten zutik, urrez ta zidarrez dirdizari margoko jantziak, aurreko oñak goraltzadera, bialduten musuak danairi, ta etaralaz jantzienureko zakutxotik lorak emuteko an eusenairi, beti bialduten musuak (ezkuaz bezela) danairi...

Laister, errikoak ezagutuebein antzelari a zala "IÑOREN TXAKURRA", lau urte atzerantz, ez ebeña ikusten EDOZEIN errikoak. Ta geienak ezaten ebeñ: ¿Iñoren Txaturra, orain antzelari au?.

Ba ja berbera zan!.

## IV IKUSIZANA

Gero, antzelari onek egiñenaz dagozen geienak abozabalik, ikusten: igotezela zurunbeak ta jauzkada batetik bestera jarraituteko emuten, geratubarik, inbuluzketak, ipiteko zutik sasi alki gañean, ta an gañetik jauzkada batetik zartu zertenzan susko ustsi batetik, jarraituteko, geratugabe, emuten inbuluzketak, atzenian, beti zutik, etarateko, ezeita eukan zakutxotik, KRABELIÑ polita eder bat, eruaneutzana, an cuna ikusten, umetxu baten..., bialduten beti musuak an euzain erriko daneiri. Ta oneik danak zutik txaloka.

## V ERRIKOAK EZATENEBEÑA

A izan-zan, gauaretako antzerkizunean amaitu zanean dana. EDOZEIN errikoak dagozen ez aztuteko beinbe ikuziebeña.

Ben-benetan errian iñok ez eben aztuko beinbe ikuzie-bena.

Ta itaunditu ebein ogei ta gelago aldiz: "IÑOREN



TXAKUR ¿IZAN LEZKIEN ANTZELARI AUNDEA TA BURUGOGO AIÑ ONETAKOA?. Ikuzi ebeñaz geratu zian beinbe ez aztuteko, geratuteko erriko buruetan betiko.

## VI IZPAR-IDAZLEAK: EUREN BEARREAN

Baña ori ez zan dana. Ikusten euzeiñ antzerkizun a, euan "EGUNEKO" izparrangien PATXI, idazlea. Onek ezaten eben geruago; "Lenengoan nik ez neben itaiten ikuziebena, irakaspen aundiagorik". Ikuzi ebena ez zan edozein izparbarria, zalako ipiteko EGUNEKO izparringian lenengo orrialdian, goi-goian, ikuzi eizeiñ irakurle gustek ta jakineixein IÑOREN TXAKURRA orain dala ARTIST ANTZELARI AUNDEA. Baita -be esker-irakasleari ezertik jakiñebelako, iñoren txakurretik, egin ARTIST ANTZELARI AUNDI BAT.

Ta ezan-añez Patxi idazleak, agertuzan idazti bat iratzarrikoebenak erriko gustien orakuntza.

Ezaten zan an: "Gure erriak bierdago ikastetxeak ta irakeketeo erriko askoairi izaneixen onurako geiangoak eurentzat ta erri guztientzat. orrelan jazo lezke gure erria, bizi obea eltzeo baikotzentzat ta danentzat, izan alaz baikotza danentzat, ta danok baikotzentzat. Gertari onetan ikustenda: Batetik, "iñoren txakur" batetik egin lezkela ikuzidoguna, ta bestetik, ori orrelan izandala eskerrak irakasleari. Gertari onegaz dakogu neikua jakiteko zelan jazo ta ipiñilezken gure erria bide ta leku obean.

Jaurdiketendot gure erria jazoteko ta aurreratuteko bierdogula ikastetxe ta irakasle geiango, gertatuteko gazteairi, izan-eizeiñ erriak biardabena, urteteko dakogun ebaizkizun aundiaitik, ez dagolako beste biderik aurreratuteko edozein erriko oberaldian. ¡Danen gañetik biardea irakasle onak, ikastetxeak! ¡Erriko buruzagigoen ta guztiententako ezkuetan dago gure benetako aurrerakadea:

Azko ikasidogu IÑOREN TXAKURRATIK ta beren IRAKASLE JAUNEATIK.

Patxi

Beste idazle batek, ikusiebeñak IÑOREN TXAKURRA-ri ez aztuteko gau aretakoa, idazti eben EGUNEKO izparringean:

### "IKAZI BARIK EZ DA JAKITEN"

"Gure EDOZEIN errikoartean, IÑOREN TXAKURRAK, eskerrak beren irakasle jaunari iratzarri dozku ikusteko "Ikazibarik ez dala jakiten..."

Orrelako idaztiak, INOREN TXAKUR-etik ikazi ebeñaz, ezan lezke ekin zala EDOZEIN erriko eraldatasuna.

Buruzagigoak iratzarriean.

Ekinzian eregiten ikastetxeak; lurreko ta itxaseko biarrian ikusten ebeñ jan, edan ta bizitekoak eukientzala. Baita beste biarretan eltzenzala biziteko.

Bañe danetarako lenengo kendu biarzala gañetik: nagitasuna ta alpertasuna, ta gero lenengo ikazi bierdala "ikazibarik ez da jakiten", dalako zelan egiñ biar on-on bat, dakizen-lez ¡IÑOREN TXAKURRAK! orain artist antzelari izendunai. Idazten eben PERU-tok.

Ta orrelan jazotenzan erriko gogoia urteteko inka aundi aretik, erabagiten ebaizkizunak, ¡irakasleairi entzuten!

Patxi ez eben jareten beren bearra idazten onelakoak:

### "IÑOREN TXAKUR-BATETIK ARTU DOGU IRASKAPEN ONENA"

Orrelako ta orren antzeo idaztiak, egunero, ez zian geratuten ezertzan. Errikoak ikustenebein elduz ala eguna aldatuteko bizi-bidea.

## VII

### MARGOZKARIBATEN BIOTZTASUNA

Ta danori ikuzizan lagunduta, erriko margulari batek, beinbe eziñebeñak aztu, ikuziebena "GAU ARETAN", egonzanean EDOZEIN errian titerea ta esku-jokariak "IÑOREN TXAKUR"-a, antzelarien ikuzi garriak, asmau eben "IÑOREN TXAKURRARI" ikuzi eutzan-lez: Zutik, zidarrez-ta urrez dirdizari margo jantziak, zakutxoaz aurrean; aurreko oñean baten (eskutxo bat bezela) eutziten krabelin guztiz polita ta ederra, bialduten musuak EDOZEIN errikoairi, beste aurreko oñaz (eskutxo bat bezela) -dan ori margutu eben, ta margo aretan irakurtenzan.

Goian: "NERE EDOZEIÑ ERRIKO ANAIAIRI".

Beian: "NERE BIOTZA DAGO BETI  
ZUEKEIÑ"

Erikoak ikuziebeñean marguridi a, danak erozi nai ebeñ.

Erriko-Etxekoak erozi ta ipiñi ebein, danak ikuzileskien lekuan.

Baita be ikastetxe gustietan.

Margozkari arek euki eben orretan,

## KONTU KONTARI

margotuten "IÑOREN TXAKUR", amar urte, egu-  
mero, geratu gabe.

### VIII

#### IZPAR GOZOKI BAT

Egun baten, urte batzuk gero, "EGUNEKO" izpa-  
rrean irakurtenzan izpar bat: "TXAKUR  
ANTZELARI-ludiko izenduna- egiñ -alaz guztiz  
aberatzak titiritu ta beren zuzendari ta irakasle. Jau-  
nari. Jakiñ-da bizidala beren etxe-eder baten:  
URIBARREN.

Lur-eko aundiki aundiklenetxealdean.

Dakola, berentzat bakarrik, oge aundibat; artzendago  
esne onenetakoak ta nai dabena, baita aragi ta azur one-  
natakoak. Egunero ur-epelaz garbituten dautzoe, baitabe  
ur-uzañonetakoaz beren morroiak: Damasko-ko perpu-  
nonenetakoak, eginda lorauzaingozuenaz, ipitendautzoe  
lau neskak orrastualaz ta musuak artualaz daneitatik.  
Dako sasp pelota jolasterako naidebenian. Egunero bi  
osagillek ikuzi ta zaindute dabe. Ta dako oge ganan,  
orman esegita, beren margirudie EDOZEIN erriko mar-  
golariena, erozieutzana. URRIBARRI-ko zaltzalle bate-  
ri.

Izpar orretan ezatenda be: "...Lur-eko aundikiaundi-  
kikoak naiegiella ezkondu curen txakuremeak IÑOREN  
TXAKURRAZ, bañe erartzundabela onek "bera baka-  
rrik ezkontulezkezela beren antzeko bategaz, ta ez bes-  
tegaz, aundiki izanarren.....

Izpar orrelakoaikin EDOZEIN errikoak postuzean  
jakinalaz curen bateko bat, "IÑOREN TXAKURRA"  
ondo, ederto, euela, izan zana ekiñebena errikoen bide  
zuzentasuna. Ori, ekiteko bakarrik.

### IX

#### ALDATESUNEN ONEINTZ BIDEAN

EDOZEIN errian, txakurren ondoren ikuzi zan: bide-  
tan, iñunbe ez zan ikusten txakurrik, lenagolez, bakarrik  
curen etxeakoaz baño, ta neguan, otz ez eukiteko jan-  
tziaz.

Bibernakolurtegiak ikuziebeñetik IÑOREN TXA-  
KURari gabeedestikoaretana, izparringietan, margola-  
riak irakatu ebeñaz-, gogo aunditasunez dagozeilla  
beteta Lur-ekureiren alde, oldostuten ebeñ -lenengo  
aldiz- Asis-ko Aita Prantxiskok, ezatenebenaz:  
"-Danok gara anaiak bi bernakoak ta lau ankakoak-be  
baita".

Aldatasun aretik, txakur gustek-beintzat EDOZEIN

errian bizizian EUREN ETXEAN, atetik barruan  
ZAINDUTEN baikotzak beren etxea ta berenekoairi,  
ondo jan ta edaten ezne ta ur garbea, ta baikotzen ogean  
(ez lurrean), ondo garbituta ta orrastuta, ta bear zanean,  
curen osagillaz.

Ori be izan -zan ekarribeñak gauestiko arek: Beste  
aldatasun aundierna EDOZEIN -errian bibernako ta txa-  
kurren ondoren.

Bakarrik geratukozean bibernako artean, curen  
ebaizkisunak. ¡Ixa-ezer!.

ONTZATEGITXU

Lima. Perú

-----  
Ipuin au da bat agertuzianean CUZCO-n, PERU-n,  
etxezar bateko gaimonetan, ta uztendabeñe batzuk,  
izaniezkieilla Lope Aguirre-n beeranizkoenak. Ipuin  
oneik dagozeiñ idaztita ONTZATEGITXU-tik, perga-  
miñetan (auntz-larruetan) antxiña ta ikuskekaribatek  
1940 urtietan erozieutzela, andiko zaltxallebateri.  
Ipuin oneik uztenda izanziala idaztita 1.650- 1.700  
urtietan (g.g.b.). Orregaitik iratrargatu dabe gogo-aun-  
dea erakurle artean.

Idazle batek ezandau: "Ipuin oneik ez dea bakarrik  
onak gaztientzat, baita-be naguzientzat °".

IZAR ARGIALDE-K ezatendau, Lima 'n, Peru 'n.

"IPUIN ONEIK DAGOZ  
ESKEINTZATUTA  
EUZKELTZALE GUZTEAIRI"

IZAR ARGIALDE-k (Lima'n, Perú'n) ezatendau  
uztendabela ipuin oneik dagozela idaztita BIZKAI-ko  
antxiñako euzkorean.




ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU


# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Marrazki onetan 7 ezbardintasun dagoz.




Lotu zenbakiak eta agetuko jatzu marrazki bat.



Ipiñi bear dozu zenbaki egokiak, baña azken zenbakiak bardin geratu bear dira.






**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat artuten dogu, geure erri onen arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik lagunduten deutsegu gogo osoz, geure nortasun berezia indartuten deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten deusagu, kultur adierazpenen artean, gure ezaugarririk gorena dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa